

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Azaroak 22, 127. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Herri-aldizkariak

Bi egunez elkarrekin Arrasaten


Arrasaten azaroaren 22 eta 23an

1. PRENTSA LOKALARI BURUZKO IHARDUNALDIAK

Antolatzailea: **AED**

Laguntzailea: **Lan Kide Aurrezkia**

Babesleak: **Gipuzkoako Foru-Aldundia. Nafarroako Gobernua.
Arabako Foru-Aldundia. Arrasateko Udala.**



Fagor: goreneko Teknologia gizatzen.

JIK

35 urte haundi aurrerapenari arnasa ematen.

Fagor-en seme zaharrena petrolioeko estufa bat izan zen.


Gaur egun museorako balio duen aparailu arrunt honek funtsezko bi helburu bete zituen: familiarako bero gozoa sortu eta bere egileei enpresa-indarra eman.

Lurralde hontako industria talderik indartsuena Fagor da. Eta berak sortzen dituen produktuak guztiz ospetsuak dira nonahi ere, eta munduko bost lurraldetan saltzen dira.


Alabaina, bada zerbait aldatzen ez dena Fagor-en: aurrerapen teknologikoak pertsonen bizitza maila hobetzen erabiltzeko duen gogo osoa, alegia.

Eta horretarako ikuspegi humanista bati eusten dio ikerketa zientifikoan eta bere iharduera enpresarial guztian.


Eta gainera teknologia aldetik etorkizun fantastiko sendatzen ari da.




Kontrol Numerikoak.




TB Hargailuentzat ekipoa.



Produktzio automatizaziorako lineak.



Autoarentzat osagarriak.



Elektrogailuak.

130 edo gehiago produktu egiten ditu Fagor-ek, 34 langintza desberdinetan. Bere 13 enpresatan 8.000 lankide ari dira buru-bihotz. 110.000 miloi pezeta eta gehiagoren salmentak egiten ditu urtean % 30 atzerrira salduz.



Teknologikoki fantastikoa

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea, 1 / 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Iñaki Mendiguren

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Agurtzane Loidi

Publizitatea eta harpidetzak:

Amaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Karnele Zuazubiskar, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea, Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop: E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Oinazearen funtzioa

Sebero Altuberen lanen artean, ziurrenik gutxien ezagutzen dena "La fonction de la douleur" izenpean argitaratutako saiakera filosofikoa da. Ez da hain harrigarria, izan ere Altubek Frantzia eta frantsesez publikatu bait zuen aipatutako lana eta zenbait ahalégin burutu zituen arren, ezina gertatu zitzaion Euskadin berrargitaratzea. Egoki iruditu zait liburu horren gaineko zehazkizun batzuk ematea. Dena den, diodan lehenik, saiakera horri buruzko azterketak Mikel Lasa idazle zumaiarrak egin zuela "Sebero Altube" titulatu nuen nire liburuan.

Hurrengo datuek ez diote idazki horri ezer berezirik eskaintzen; testuinguru aberastu nahi dut soilik, izan ere meritua aspaldi bait dauka irabazia Altubek, nazioarteko aditu batzuek epaituta. Beraz, noan aurrera, ondoko xehetasun objektiboak ematera.

"La fonction de la douleur" titulupean argitaratutakoa laburpena besterik ez da, Altubek espainieraz idatzitako testu luzeago batena. 1958 urtehasieran publikatu zuen Paben, non arrasatearrak hogeitabi urte eman zituen exiliatua eta orijinala irarkolara igorri aurretik Seberok zenbait adituen iritziak ezagutu nahi izan zituen. Idazkiaren gertuketak zenbat denbora eraman zion ez dakigun arren, Seberoren beraren aipamenak gerra-bukaeraren inguruan ipintzen dute saiakeraren hasiera. Erdarazko orijinalak 350 orrialde baino gehiago zeuzkan,

makiaz idatzita. Idazkia 1950 aurretik burutu zuela esan liteke, hurrengo urtean lehendabiziko irizpideak hartzen bait ditu... frantsesezko bertsoari buruzkoak.

Jakin badakigu, Seberoren loba den Elixabetek lagundu ziola frantsesezko laburpena itzultzen, Elixabete UNESCOren itzultzaile ofiziala zelarik. Diodan halaber, argitaletxeren batek espainierazko orijinala inoiz publikatu nahi izango balu, Elixabetek gordetzen duela testu osoa. Gorago nioen bezala, Seberok bere tratatuaren gainean aditu batzuek izan zezaketen kriterioa ezagutu nahi izan zuen. Horrela, Pariseko Unibertsitateko erretore zen Jean Sarrailhengana jo zuen; baita Sorbonako irakasle ziren Vladimir Jankelevitch, Raymond Bayer, Jean Wahl eta europar erakunde batzuetako arduradurengana. Erantzunek, aho batez, laudorioz bete zuten liburugaia.

Bestalde, liburuaren kostua finantzatzeko "Centre National de la Recherche Scientifique" delakoaren dirulaguntza eskatu zuen; bitarteko lanak, Estatu-Ministrari zen Andre Malraux idazle eta politikoa egin zituen, Altuberen sendiko laguna bait zen.


Lastima da liburu hau hain ezezaguna izatea. Filosofi eta zientzi interesez gain, bere heziketa eguneroko lan ixilean landu zuen arrasatear handi baten erdua aurki bait daiteke, giza oinazearen funtzioak ikertu zituen obran.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Memesa
79 42 22

Onduline

TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18

Iñaki Mendiguren-i

Ez diat inor aspertu nahi eta denari puntuz puntu erantzun barik, gure "betiko" eztabaidaren muinari erantzungo zioat.

Ados negok hire kartarekin neurri batean. Bai! Euskara idatziak badizkik bere arauak eta hala behar dik izan, eta, jabetuko hintzenez, nik beti erabili izan dizkiat nire kartetan eta aldizkari horri egindako kolaborazioetan. Alfabetatuta gaudenok, dudarik gabe, araei jaramon eginez idatzi beharko geniake. Baina arauak ikasi ez dituztenek? Berdin zaidak zergatik ez dituzten ikasi, baina euskaraz eskribiruteko eskubidea euskaltegian saltzen ditek ala? Iñaki! Izan hadi hori baino esku zabalagokoa eta ez ezak ahaztu euskararen erabilpena areagotuguran nabilenik eta nirekin dabilen jendea ez dela Arrasate Press-eko kolaboratzailearen prototipoa: alfabetatua, militantea eta euskararen aldeko ardurarekin. Arrasaten zer dagoela uste duk bada? Egoten hasi dadin lanean gabiltzak eta gaur egun neure ustez produkzioaren kantitatea zegok kalitatearen aurretik, jendea lanean jartzea duk helburua. Ala ez? "Dakixenak inddaixela" esaldiari zera gehituko niokek: "Dakixenak, ahal dauen letxe, baina inddaixela". Bazekiat hi horrekin ados egongo ez haizena eta hizkuntz anarkistak izango garela hiretzat, baina Iñaki, ez al duk hobea izango bertakotxe euskeran produkzio apurren bat, horiek erdararen mesedetan galtzea baino?

Dena den, ez diat galdera batekin amaitu gura, ezaguketan haudalako eta badakidalako erantzunik gabe utziko ez hukena.

Baina Arrasate Press-eko orrialde

hau gure "konponezinaren gudazelai" egin nahi ez dudanez, AEDko lokale-tan larunbat batean gure ezadostasunak leuntzera gonbidatu gura hinduzket, hi eta gai honi buruz interesa duen jendea, bazegok zati bat eta. Agur t'erdi.

Jabier Ozaeta

Misteriorik misteriotuena

Azalduko al dit norbaitek zergatik egiten den Euskadi Irratian (euskaraz, noski) ETB-2 gaztelaniazko katearen hainbeste publizitate? Euskaldun ikusentzuleok eraman behar gaituzte ETB-2 gaztelaniaz ikustera? Mese-dez, ez adarrak jo! Hamaika ikusteko jaio ginen, baina honelakorik!


I.M.

Idea bikaina

Auzokoek ongi egiten dutenaren «inbidia sana» ez da txarra, eta kopiatzen bada, askoz hobe gainera.

Oñatiko Udalak eta bertako Turismo-Bulegoak hiruki edo triptiko eder batzuk argitaratu dituzte herri-inguruetan paseotxo arinak, ibilaldi gogorxeagoak, oinez nahiz bizikletaz... egin ahal izateko; mapaz, argazkiz eta informazio jakingarriz egoki hornituta daude. Nik ez dakit hemen nori dagokion horrelakoak egitea, baina uste dut ideia bikaina dela herria bera eta inguruak hobeto ezagutu eta maitatzeko. Ea bada!

G.A.



Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta oparidenda

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

ZANGITU
C. B.

PINTURAK ETA
PAPER PINTATUAK

Olarte, 29
Arrasate
Tfnoa: 79 91 82

D. Irala
Bergara
Tfnoa: 76 19 54

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62



PAZI-OLA S.A.
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 91

Zer deritzozu "Corcuera" Legeari?



Teresa Guridi
(Etxekoandrea)

Nire ustez, ez dago bat ere ondo Corcuera egindako lege hori.



David Zaitegi
(Ikaslea)

Zerbait entzun dut horri buruz, baina ez gehiegi. Hala ere, ez zait ondo iruditzen; nik neuk ere, esaterako, inoiz ez dut karnetik eramaten.



Enrike Foronda
(Ikaslea)

Lege horrek ez du ezertarako balio. Okerrena, karnetarena iruditzen zait; ez baduzu, atxilotu egin zaitzake- te eta. Hori pasada handia da.




Maria Jose Iglesias
(Ikaslea)

Ez dakit, baina gaizki iru- ditzen zait.




Ana Mugerza
(Langabetua)

Oso gaizki, legeak per- tsonen eskubideak mugatu eta poliziaren esku uzten ditu eta. Lotsagarriena, euskal partidu batengatik irten dela aurrera, kontuan hartuta eus- kaldunok bizi izan dugun eta bizi dugun errepresioa.



Alberto Kabiketa
(Labe Garaietako langilea)

Izugarrizko pasada irudi- tzen zait. Orain arte gauza ugari entzun dira Corcuera buruz, baina oraingoan neu- rrigabeko muga igaro du. Guztiz kontrolatu nahi gaitu, jendea ezertarako mugitu ez dadin.



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko armairuak
Lan egiteko aulkiak

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- * Diagnostikoa - Orientazioa
- * Estimulazio goiztiarra
- * Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkuntz berreziera)
- * Logopedia
- * Laguntza-terapia
- * Mota guztietako eskola arazoak, enuresia
- (Ohe-bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10

ARRASATE TFNOA: 79 48 77

PUB HAIZEA



BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
--------------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZAK

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------



22

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Un vaquero sin rumbo" (5-7.30-10).
- Prentsa lokalari buruzko ihar-dunaldiak.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

23

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Cita con Venus" (5-7.30-10)
- Prentsa lokalari buruzko ihar-dunaldiak.
- Bideo-emanaldia: "Indiana Jones zorigaiztoko tenpluan", Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Igeri-taldeko bazkideen Aparteko Batzar Orokorra, Monterronen, goizeko 11etan.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

Kirol Agenda

Futbitoa

- Larunbat eta igandean Zaldibarko Txapelketaren barne partidu ugari.

24

IGANDEA

- Zinea: Alai: "Cita con Venus" (5-7-9.30)
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

25

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Cita con Venus" (7-9.30)
- Sta.Agedako Ospitalean, antzerki-emanaldia 5etan.
- Gabonetako txartelen erakusketa, Monterronen
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

26

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Cita con Venus" (7-9.30)
- Sta.Agedako Ospitalean antzerki-emanaldia 5etan.

- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

27

ASTEAZKENA

- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.
- Ikerlan: *Standard grafikoak* ikastaroaren hasiera.
- Sta.Agedako Ospitalean antzerki-emanaldia 5etan.

28

OSTEGUNA

- Hitzaldia: "Afektibitatea bikoitean", AEDn arratsaldeko 7etan.
- Hileroko Otoitza, San Andreseko parrokian gaueko 9etan.
- Ikerlan: *CAD/CAM sistema heterogeneoen arteko datu-trukatzea* ikastaroaren hasiera
- Sta. Agedako Ospitalean antzerki-emanaldia 5etan.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

Pilota

- Iturripen, larunbatean goizeko 11etatik aurrera Arrasate eta Idiazabalgo pilotarien arteko partiduak.

Futbola

- Atxabalpen, igandean arratsaldeko 3.30etatik aurrera, Mondra eta Elgoibar taldeen arteko partidua.

Erakusketa

• Gabonetako txartelak

Monterroneko erakustokian "Gabonetako txartelak" izenburupean erakusketa bat izango da. Erakusketa honetan, Fagorrek urtero antolatzen duen gabon-txartel lehiaketan parte hartu zutenen lanak ikusteko aukera izango da. Gabonak gertu daudela eta, erakusketa interesgarria izan daiteke.

• Sendabelarren erakusketa

Aretxabaletako Euskal Txokoan Azaroaren 14ean hasi eta 28ra arte sendabelarrei buruzko erakusketa izango da. Astelehenetik larunbatera arratsaldeko 6etatik 8etara ikusteko aukera izango dute bertatik pasa nahi dutenek, eta igandean, berriz, 12.30etatik ordu 2etara arte zabalik egongo da.

Mendia

• Besaide

Besaide Mendizale Elkar-teak irteera bat antolatu du Abenduaren 1erako Bardeetara. Irteera goizeko 6etan Gari-bai geltokitik izago da, eta itzulerila iluntzean. Joan nahi dutenek azaroak 25, 26 eta 27an, Besaide egoitzan eman ahal izango dute izena 7etatik 8.30etara. Bazkideek 800 PTA ordaindu beharko dute; bazkide ez direnek 1.100 PTA; eta gazteek, berriz, 400 PTA.



ARGIA EGUNA

Igandean Portaloian mahaia ipiniko da

Azaroaren 24ean ARGIA Eguna jaia ospatuko da. Aurtengoa, ARGIA Eguna hasi zenetik, hamaikagarren ospakizuna izango da. Oraingo honetan ARGIA egunaren helburu nagusia harpidedun berriak lortzea da. Aurreko urteetan bezalaxe, euskal prentsa promozionatzea eta aldizkari honi bultzada bat ematea ekonomiko zein promozio aldetik ere, espero da. Beste herri askotan bezala Arrasaten igandean, eguerdi aldean Portaloian inguruan mahai bat jarriko da eta beste gauza batzuren artean, honako hau aurkitu ahal izango da: "Euskal kulturaren Urtekaria 91"; ARGIA eguna astekaria; aurten berrikuntza gisa, ARGIA egutegia; harpidedun egiteko aukera, aldizkari honen inguruko informazioa, pegatinak...

Horretaz gain mahaia ipiniko den inguruan musika, pintoreak, txalapartariak, hanka-luzeak, etab. izango dira.

Deialdia

• Otoitza

Arrasateko eliz-elkarteak hileroko otoitzaldia egingo du datorren ostegunean, azaroak 28, gaueko 9etan San Andreseko parrokan, hau da, Ntra. Sra. de la Asunción elizan.

Hitzaldiak

• "Gaurko enpresak eta etorkizuna"

Gizabidea Elkar-teak antolatuta, urtero moduan On Jose

Maria Arizmendiarrietaren orimenez, hilaren 29an hitzaldi bat izango da. Aurtengo hitzaldiak "Gaurko enpresak eta etorkizuna" izenburua darama eta hizlaria Juan Miguel Antofianzas izango da. Aipatutako



gizona, donostiarra jaiotzez, nazioarte-mailako hainbat enpresatako arduraduna izan da eta da. Hitzaldi hori bukatu eta gero, "On Jose Maria Arizmendiarriri" VI. Lehiaketako irabazleen izenak emango dira jakitera.

Aipatutako guztia Eskola Politeknikoko areto nagusian burutuko da; esan bezala, hilaren 29an eta arratsaldeko 6etatik aurrera.

• Sendabelarrak

Azaroak 25ean arratsaldeko 7etan Aretxabaletako Udaltzeko pleno-aretoan, sendabelarrei buruzko hitzaldia. Hizlaria Paulina Kernstock izango da.

• Arkeologia

Azaroak 28an arratsaldeko 7etan Aretxabaletako Udaltzeko pleno-aretoan, Aretxabaletako arkeologiari buruzko hitzaldia. Hizlaria Lourdes Herrasti izango da.



Ikuskizunak

• Antzerkia

Azaroak 30an, gaueko 10etan, Aretxabaletako Kurtzebarri eskolako aretoan, Ouviers taldeak «Louviers presenta a Louviers» antzezlan eskainiko du.



“ Galartaren koadroen beste ezaugarri bat da beraien ahalmena —edo beste kasu batzuetan bertutea— era berean bai indarra eta erdi bana finta-suna adierazteko”.

(Jessica Postigo, El Mundo. 1991-XI-17)

“ Ohizkoa duk euskararekin konprometituta dauden gazteen artean ere, kokoteraino pringatuta daudenen artean ere, bost esalditik bat erderaz esatea. Esaldi espresibo gehienak (ez esalmoldeak bakarrik, esaldi osoak) erderaz esatea. AEKko irakasleen artean, Argian, EGUNKARIAN ikusi diat nik hori. Euskaraz bizi diren, euskararentzat lanean ari diren eta euskaldunzaharrak diren lagunene artean. Hor zerbaitek hutsegiten dik. (...) Gozamina maila guztietan bilatu behar duk. Hor inportanteak dituk ahazten ari garen hainbat arlo: azentua zaintzea, musikalitatea, hizkera gozo hori bilatzea...”

(Jon Sarasua, El Diario Vasco. 1991.XI.20)

“ Euskaraz egindako publizitatea bonifikatzeko politika burutu beharko lukeela Administrazioak, esan ondoren, gaineratzen du:

«horrela, enpresak beren iragarkiak komunikabide guztietan egitera animatuko lirатеke, eta bestetik, euskal komunikabideak bultzatuko lirатеke gaur egun oztopo handiak bait dituzte bizirik irauteko; izan ere, enpresek pentsatzen dute ez duela pena merezi horietan argitaratzeak, gainerakoek baino irakurle gozo edo entzulego urriagoa dutelako».

(Edorta Arana. Egin. 1991.XI.18)

Zer eritzi duzu bertso-txapelketei buruz?



Txapelketak beharrezkoak dira; alde bate-tik, entzulegoakeskatzen dituelako eta ikuskizun modura eskaini behar dire-lako, baina horrek ez du esan nahi urtero antolatu behar direnik. Bestalde, bertsolari gazteak ezagutarazteko modua da, bestela oso aukera gutxi izaten dute eta ate bat zabaltzeko modu bakarrenetarikoa da..

Bertsolari-txapelketak teknika askoz ere landuagoa eskatzen du eta saio normaletan botatzen den bezain bertso onik ez da egiten. Txapelketetan kasu gehiegi egiten zaio errima zaintzeari eta potori-ekin gabe bertsoak osatzeari; horregatik, hau zaintzearen, saio normaletan bertsoek duten piperra eta grazia ez dute txapelketetan izaten.

Txapelketa gehiegi egiten da, bai nagusien mailan bai gaztetxo- en mailan. Horrenbeste txapelketa egiteak bertsolari asko ordua baino lehen erretzeko arriskua du. Txapelketa ez da bertsolari onena, parametro batzuen arabera puntu gehien ateratzen duena baizik. Txapelketa estilo konkretu bat erabiltzen da eta estilo hori ez dute bertsolariek ez dute irabazten. Badaude bertsolari batzuk txapelketetan bakarrik abesten dutenak; haue-tan nabarmentzen ez direnez, beste saioetarako ere ez diete deitzen. Guzti honengatik bertsolari asko erre egiten dira.

Aitor Sarasua,
Bertsolaria.

Laster
zabalduko da...

LOS VAQUEROS

Zerkaosteta, 5

ARRASATE
PRESS



77 05 65

ARRASATE
HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

MUSAKOLA
OSTATUA

Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50



Egun hauetan euritakoak erabili behar izan dira

Eguraldia aldakor

Azken egunotan egin du euri gehien

Eguraldiari dagokionez, gorabehera handikoa izaten ari da azaroa. Egun batzuetan bero egin duen moduan, beste batzuetan tenperaturak ikaragarri jaitsi dira. Azaroaren egunik beroenak 1a, 3a eta 12a izan dira, bataz beste 18-19 gradutako tenperaturaz; egun horietan, tenperatura ez zen 12 graduetatik jaitsi. Beroa alde batera, hotza ere aipagarria da, egunen baten izotza ere egin du eta. Hotz handiena 11an egin zuen, termometroak gradu batera jaitsi ziren eta; inguruko egunak ere, 7a, 8a, 9a, 10a eta

12a fresko samarrak izan ziren, 5-6 gradutako minimekin. Era berean, 19 eta 20an, termometroak 4 graduteraino jaitsi ziren.

Euria ere, azken egunetan gehienbat, protagonista handia izan da: 6an, metro karratuko 26 litro bota zituen; 14ean, metro karratuko 17 litro; 16an, metro karratuko 38; 19an, 16 litro eta azkenik, 20an 47 litro. Uraz aparte egun lehorrak ere izan dira, ur tanta bat ikusi barik pasa direnak, esaterako 1a, 2a, 8a, 9a, 11a eta 12a.

AEDn aldaketa?

Badirudi, orain artean AEDren baitan liberatu gisa lan egin duen Juan Luis Arejolaleibak bere lana utz dezakeela. Zurrumurruek arabera, beraren lanpostua Jabier Ozaetari eskaini omen diote.

Egibar eta Egiguren

Zurrumuru batetik beste batera. Txori batek adierazi digunez, badirudi astean zehar Joseba Egibar jeltzalea eta Jesus Egiguren sozialista herriko batzokian bildu eta hitz egiten egon zirela, alderdi bietako herri-ordezkariekin batera. Zertaz? Hainbeste ez zekien gure txoritxoak, baina zentsura-mozioaz hitz egin zutela ere bazioen beste komunikabide batek.

Txukuntze-lanak

Gobernu-Batzordean hartutako erabakien arabera, Udalak hobekuntza eta txukuntzak egin nahi ditu herriko berdeguneetan. Udalak "Parques y Jardines de Abadiano" enpresari enkargatu dizkio egin beharreko lanak: Altamirako garbiketa-lanak, 1.678.000 PTA; Obenerreka, Santamaina eta Aldaigaineko ezpondaren garbiketa-lanak, 2.367.000 PTA; Alfontso X. Jakintsuan lorategia berritzeko lanak, 75.000 PTA; Nafarroa Etorbideko berdegunea berritzeko lanak, 205.000 PTA; azkenik, udalerriko hainbat lekutan zuhaitzen birlandaketa lanak burutzeko, 1.198.000 PTA. Argi dagoenez, Udalak itxura berria eman nahi dio herriari.



ARRASATEKO UDALA



Arrasateko Udalak **IMI Zentrurako bi monitore** kontratatu nahi ditu urte beterako.

Oinarriak IMI Zentruan eta Udaletxean jaso daitezke. Izena emateko azken eguna abenduaren 5a izango da.

Beasaingo bertso-saioa

Azken laurdenak hasiak dira mar-txan. Joan den ostiraleko saioan bi Leinztar genituen kantari: Aitor eta Jon Sarasua. Talde bikaina ezezik, jendetza ere ez zen makala izan. Antolatzaileek bazuten beldurrik Retegi eta Eugiren arteko pelota partiduak jendea etxean utziko zuena baina, ezta urrik ere!

Joni ziurtasuna nabari zitzaion bere bertsokeran, betegarri gutxi eta lasaitasuna. Jendea gehien animatu zuen bertsoa oinekin egindakoa izan zen, intsumisioari buruzkoa, hain zuzen ere. Aitor hasieran nerbioen menpe egon zen bertsozik gustora moldatu ezinik. Azkarregi kantatuz batzuetan eta trabauneak eginez bestetan. Bukaerarako, lasaitu eta gartzelako bertsoek jendearen txalo zaparrada ederra ekarri zuten.

Puntuazioak honela: Peñagarikanok 483,5; Egañak 474; Jon Sarasuak 463,5; Lizarretak 431; Aitor Sarasuak 417,5; Igarzabalek 407,5; Otamendik 401 eta Etxezarretak 386 puntu.

Agian Peña gehiegi puntuatu zuten, gartzelan ateratako doinu berriaren eraginez. Egañak, akats batzuk tarteko, saio ederra egin zuen. Hurrengorako Jonek bidea zabalik dauka eta Aitorren hemen gelditu beharko du. Ez da gutxi!

ONGI ETORRIA JAIÖBERRIEI

Sanabria Arzamendi, *Ana*. Azaroaren 4ean.
Arejoleleiba Iria, *Jon*. 6an.
Herruzo Caballero, *Arantxa*. 13an.
Lasa Madinabeitia, *Maitane*. 15ean.
Reche Cabezas, *Ana* eta *Rebeca*. 17an.

ZORIONAK EZKONBERRIEI

Felix Mondragon & Miren Gotzone.
Azaroaren 9an. Zibilez.
Gustavo Jose Zalama & Marcelina
Carmona. Azaroaren 9an. Elizaz.

Txandaka


INDUSTRIAREN TXARTZEA DEBA GARAIAN

Euskal Herria jasaten ari den txartze industrial progresiboak Deba Garaira ere ekarri ditu ondorioak:

Aurreko hamarkadan hainbat lantegik beren ateak itxi eta milaka pertsona lanik gabe geratu ondoren, 3 urteko (86-89 arteko) hobekuntzaren ostean, enplegua erregulatzekeo espedienteak eta lanpostuen desagerpena berriro ere gurekin ditugu, baita enpresak itxiko direlako mehatxua ere: BEROA, ILARGI (Aretxabaleta), RONEO, CEVENTOR, MAYC (Bergara), ARIHER (Antzuola), UCEM Metal-Eraldaketak (Arrasate), besteak beste.

Krisi honek erantzuleak ditu eta erantzule horiek izena dute: Enpresariak eta Gobernuak. Lehenak (gehienak), enpresak bertan behera uzteagatik irabazirik ematen ez dutenean, eta gainera, irabazi horiek bere garaian ez zituztelako erabili instalakuntzen hobekuntza egiteko. Gobernuak, beren iharduera industriaren berrindartzera ez zuzentzearen. Bestalde, Ertzaintzak langile manifestarien aurka izandako agerraldiek ondotoxo agertu dute gobernuak langilegoaren eta hauen errebindikazioen aurka daudela.

Guztiok gogoratuko dugu Enpresa Handietako (ACENOR, etab.etako) lanpostuen suntsipena.



Juan R. Garai (*)

Hala ere, euskal industri sarea defendatuko duen politika egin behar dela uste dugu, bertan gure lurraldeko enpresa txiki eta ertainak sartzen bait dira.

Egia da, arazo honen konponbidea ez dagoela inoren esku-eskutan, baina gutxienez badakigu irtenbide hori zein bide-

tatik lortuko ez den. Inoiz ere ez enpresariei enpleguak suntsitzeko subentzio-politika mantentzearen bidez. Langilegoa gutxitzeari buruz konponbide ez traumatikoak ematea ere ez da nahikoa.

Euskal Gobernuaren zein Zentraren ekonomi politika eta Gobernu eta Enpresariekin ondo konpontzea baino bilatzen ez duen politika sindikala, biak ere baztertu egin behar dira. Izan ere, aurreko krisiari dago-kionez, porrot egin bait zuten erabat.

Etengabeko enpleguen suntsipena ekiditeko edo ebitatzeko mobilizazioa indartu beharra dago, krisian dauden enpresetan aurre eginez eta errententzia bertatik eraikiz, langileen erantzuna sustraitu eta indartu dadin.

Eta mobilizazio handiekin jarraitu behar da, koordinazioaren bitartez eta erantzuleak adieraziz, gainontzeko sektoreetara ere mobilizazioa zabaltzeko.

(*) Arrasateko CC.OO.ekoa

LILURA

zeure moda
diseinatu
eta sortzen laguntzen dizu

Zerkaosteta, 5 behea.
ARRASATE Tfnoa: 79 89 72

ENARA
OSAGARRIAK

Maalako Errabala, 21
Tfnoa: 79 62 32
20500 Arrasate




ARGI PLASTIC. C. B.

**PVC eta aluminiozko
leihogintza**

Berria Arrasaten! Diseinu berriak!

Axeri, 3 ARRASATE
Tfnoak: 77 02 40 / 77 11 30



Antzerki lan guztiak Aita Mennin bertan egingo dira

Aita Mennin antzerkia ikusgai

Zortzi talderen partaidetzarekin, hilaren 25an hasita

Astelehenean, hilak 25ean, hasi eta abenduaren 1a arte, Aita Menni Ospitalean, Euskal Herriko hirugarren adinako Antzerki-Ihardunaldiak burutuko dira. Zortzi taldek hartuko dute parte Ihardunaldi hauetan eta lanak arratsaldeko 5etan antzeztuko dira.

Astelehenean, hilak 25, "La venganza de Petra o donde las dan las toman" lanaren antzezpina egingo du Basauriko *El Kalero* antzerki-taldeak. Lanaren aurkezpena, DVko Elias Alzolak egingo du. Asteartean, berriz, "El tonto es un sabio", Aranda de Dueroko *Arco del pajarito* taldeak antzeztuko du. Aurkezpena Herri-Irratiko Alberto Gorritibereakegingo du. Hurrengo egunean "La barca sin pescador" lanaren aurkezpena Euskadi Irratiko Julio Florek egingo du; lana, Valladolid-eko *Puente Colgante* taldeak egingo du. Ostegunean, labur samarrak direnez, bi lan antzeztuko dira: bata, "Baserritarrak"

Aita Menni Ospitaleko *Alaitasuna* taldearekin; bestea, "El Maiximo y el inglés", Tuterako *Virgen de la Cabeza* taldearekin. Aurkezpena, Euskal Teletistako Xabier Urrozek egingo du. Ostiralean, hilak 29, eguneroko dinamikara itzuli Oreretako *Jovenes a los 80* taldeak "Una conquista desafortunada" lanaren antzezpina egingo du, aurkezlea Egin-eko Carlos Gil. Larunbatean, El Correo-ko Rafa Fernandez Arestik aurkeztuta, Logroñoko *La gira* taldeak "Tres papas para Toto" lana antzeztuko du. Igandean, Iruñeako *Zuekin* taldearen eskutik "Alma de Dios" lanaren antzezpina emango zaie bukaera Ihardunaldiei, azken hau Arrasate Press-ek eta ATBek aurkeztuta.

Antzezpina dohainekoak izango dira, baina sarrera aurrez erreserbatu behar da, 79 44 11 telefono zenbakira deitu eta Joaquina Sanchez-gatik galdetuta.

Usteak uste

Prentsa lokalari buruzko Ihardunaldiak direla eta, komunikabideetan herri-prentsari buruzko aipamen ugari irakurri edo entzun ahal izan dira. Eritzi desberdinen artean, bada ideia bat ia elkarriketatu edo kolaboratzaile gehienek aipatzen dutena: herri-aldizkari bat egiteko, ordenadore pare bat eta inpresora bat nahikoa direla.

Aipatutakoa, funtsean egia izan daiteke, baina badirudi tresneria hori izan eta gero edozein aldizkari gauetik goizera atera daitekeela. Egun hauetako komunikabideetan hori izan da saldu den ideia, baita behin baino gehiagotan *Arrasate Press* ikustera etorri direnei guk geuk saldu dieguna. Beti ere, laguntza eta animoa eman asmoz, jakina. Tresneria oinarrizkoa da, baina ez inola ere behar den bakarra.

Arrasaten, beharrezko baldintzak aurkitu ziren: AED, Udalaren borondate ona, astero-astero laguntzeko prest zegoen jendea eta gainera INEMeko aukera. Hiru urte eta gero, hasieran bi ordenadore eta inpresora bat zena, erraldoi bihurtu da; ekonomiari dagokionez, batez ere. Hortik orain beharrezko den berregokitzea.

Eskema hori, gorabehera gutxiarekin, beste toki batzuetan kopiatu da. Hemendik hiru urtera berregokitu egin beharko ote dugu? Gai izango gara/dira?

BEÑARDO KORTABARRIA

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe, 2

Erakusketa: Santxo Abarka, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



URRATS


AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

Fototrunkoa



Juanito Arzamendi zen joan den asteko pertsonaia.

Aste honetako
irabazlea:
UTZUNE URRIZALKI

Argazkikoa nor den esanez, bidali
beheko txartela ARRASATE PRESSera
(Azoka kalea, 1) eta aste honetan
ZUBIAGA etxeak emango duen oparia
zozketan sartuko zara.

ERANTZUNA

**Nor da aste honetako
pertsonaia?**


Izena:

Abizena:



Helbidea:

Herria:


Tfnoa:



Iturriotz kalea, 8 ARRASATE
Tfnoa: 77 04 01



Otalora, 25 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 20



Maalako Errabala, 5 ARRASATE
Tfnoa: 79 19 25




Sari paregabeak!

Beheko sei denda horietakoren batean erosketak egitean, bi sari bikain hauek zeureganatzeko aukera izango duzu, urtarrilaren 14ean ARRASATE PRESSen egingo den zozketan parte hartuz.




**Kanaria
Irletara bi
lagunentzako
bidaia.**

Renault Clio 1.1 CL (F. F.)



KATAIDE

Kataide Poligonoa. ARRASATE
Tfnoa: 79 60 10



Maala Errabala, 13 ARRASATE
Tfnoa: 79 92 76



J. Markiegi

JANTZIDENDA

Olarte, 2 ARRASATE
Tfnoa: 79 15 32

□ **Gazteluondok 25 urte**

San Frantzisko Xabier Ikastolaren 25garren urteurrena dela eta, datorren larunbatean, hilak 30, goizeko 11.30etan ikastolako Batzar-Aretoan bilera bat izango da. Bileran horretara, lehen ikastolan ikasle izandakoak joango dira Ikastolaren 25. urteurrenaren inguruan sortutako gorabeherak ezagutzeko. Ikasle-ohiei, antolatutako ekintza guztien berri emango zaie eta gainera afari bat antolatzeko proposamena luzatuko zaie. Afaria ahalik eta giro beroenean igarotzeko, trikitixa, bertsolariak eta txiste-kontalariak gonbidatzeko aukera ere aipatzen da aurrez.

Orain arte antolatutakoa eztabaidatzeaz gain, bilerara joaten direnei ideia berriak eta aholkuak ere eskatuko zaizkie, ahal izanez gero, ekintzen zerrenda luzatzeko. Bilerara joatekotan direnei, aipatutakoaz gain, antzinako argazki, liburu, txosten eta abar eramatea ere eskatzen zaie. Ikastolaren 25 urteon historia jasoko duen liburuskua egin nahi da eta.



Batzar Orokorra

AEDren Batzar Orokorra

“Arrasate Komunikabideak” autonomoago izateko aukera

AED Elkarteak Azaroaren 21ean, arratsaldeko 7etan, Batzar Orokorra zuen egitekoa Monterronen.

AED Elkarteko Batzar Orokorrean aztertzeak ziren gaiak honako hauek ziren: 1) “Arrasate komunikabideak AED” Kultur Elkartearen eraketaren onespena. 2) AEDko estatutuen 5. artikulua aldaketa, puntu hau aurrekoarekin lotuta zegoen eta bazkide juridikoei ere atea zabaltzea zuen helburu. 3) AEDko bazkide kuotaren eguneratzea. Lehen hiru hilabeteko 1.000 PTako kuota ordaintzen zen; atzoko batzar

orokorrean hiru hilabeteko kuota 1.125 PTara igotzea proposatu nahi zuten, beraz, onetsi bada, urtean 4.500 PTA ordaindu beharko da kuota. 4) Elkartearen 1992 urterako aurrekontuen aurkezpena. 5) Galdera eta erantzunak. AEDko arduradunek azken puntu honi lehentasuna eman nahi zioten bazkidegoaren partehartzea bultzatzeko, gai-zerrendak garrantzi handia zuen eta.

Proposamenak onartu baziren, “Arrasate Komunikabideak” hemendik aurrera elkarte autonomoago izango da.



ESTETIKA-ZENTRUA
lurrundegia, opariak, jostailuak
Zarraoa
Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19

VE ECUADOR
Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

BIONA
Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

SAMEGO GARBIKETAK
Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39



Izen
PROPIOAK

● **Julio Galarta**, 73 urteko pintore zizurkildarra, aspalditik Arrasaten bizi dena. Donostiko *Kutxaren* Erakusketa Aretoan Azaroaren 18tik abenduaren 2ra arte pintura erakusketa egin i du. Erakusketa horretan 52 koadro daude ikusgai.

● **Jesus Larrañaga**, 65 urteko arrasatearra, Injeneru Tekniko ikasketak egin zituen eta Arrasateko kooperatibetako sortzailetariko bat da. Fagor Taldeko Nazioarteko Operazio-Zuzendaria da, 1956. urtetik Arrasateko kooperatibetan lanean dihardu eta orain azaroaren 30ean jubilatzen da.

● **Jose Antonio Gay**, 21 urteko atleta arrasatearra, 200 eta 400 metrotan Euskadiko Txapelduna. Historia-ikasketak egiten ari da eta EHUtik eta Errealeko atletismo-sailetik eskaintzak izan ditu, baina azkenean Arrasaten gelditzea erabaki du.

Joan zen ostiralean Biona tabernan Karmele kamareraren urtebetetzea zela eta **SS-77** taldea aritu zen, baita bi irlandar ere bibolin eta kitarra jotzen. Esan beharra dago oso giro ona zegoela eta SS-77 taldea primeran egon zela eta asko inprobisatu zuela. Hasieran taberna lagunendako bakarrik zabaldu bazen ere, bukaerarako nahi zuen gutzia sartu ahal izan zen, giroa horregatik hoztu gabe.



◀ Joan den asteko *Fototrukoaren* irabazlea **Beñat Unzueta** izan zen. Beñatek, parte hartzaile gehienengoa, argazkikoa Jose Antonio Altuna "Txatillo" zela asmatu zuen. Erantzuna Arrasate Pressera bidali eta zozketan bere papera atera zen. Mila zorion irabazleari eta gainontzekoei animo! hurrengo saria zuena izan daiteke eta.

SEGURTASUN-INJINERUTZA




Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea, 35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ



**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalora 2/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE



▲
Azaroaren 4ean hasi eta abenduaren 2ra arte ikastetxeetan **txotxongilo-emanaldiak** izango dira. Pasa den aste honetan, Txotxongilo taldeak "Sugea, gizona eta azeria" antzeztu zuen, 3, 4 eta 5 urtetako umeentzat.



Bada hilabete bat **Eskualdeko Ospitalean** dauden gaixoek X-Izpiak ateratzeko oso gaizki dabiltzana. Ospitalean obretan ari dira eta X-Izpiak atera behar dituzten bakoitzean, gaixoek Anbulategira joan behar izaten dute. Eurria nahiz eguzkia, beroa zein hotza, gurpildun aulkian edo ohatilan Ospitaletik Anbulategira arteko bidea egin behar izaten dute. Ah!-Baita erizain eta laguntzaileek ere.



▲
Azaroak 18, astelehen goizean, Gobernu-Saileko kontseilariak, Iñaki Azkunak, Uribe auzoan **Eguneko Ospitale Psikiatrikoa** inauguratu zuen. Udaleko eta Osakidetzako ordezkariak ere bertan izan ziren. Lokal berrien bedeinkapena gogotzaiaren ordezkariak egin zuen.



▲
Oñatiko Ostaleritza eskolakoek kurtsoan zehar kanpo-ekintzak dituzte prestatuta eta orain dela denbora gutxi, hain zuzen ere, Biasteriko bodega batera joan ziren egun batez mahats-bilketak nola egiten diren ikustera. Horretaz gain, Frantziako Coñagc herrialdeko Merkatal Ganbararen gonbidapena ere jaso dute eta egingo duten hurrengo ekintza izango da.



**Parques
y Jardines**

**PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA
LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ**


Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)





Uraren eragina

Duela bi asteburu larunbatetik igandera bitartean eguraldiak aldaketa egin zuen moduan, aurreko asteburuan euria izan zen nagusi. Asteburu osoan zaparrada handiak bota zituen. Argazkiak ondo adierazten du, zutik egotea ere ez zela gutxi.



ERAÑA
AHOLKULARITZA
OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzezino kalea, 4 behe. ARRASATE Tfnoa: 79 83 95



Zaldibarko Futbito-txapelketa

A taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Fosforos	6	6	0	0	38	10	12
Adobe	6	5	0	1	30	20	10
Akeitegi Express	6	4	1	1	55	18	9
Kriskibalda	6	4	1	1	29	17	9
A. Kristaldegia	6	4	1	1	24	13	9
Los Manchas	6	4	0	2	50	28	8
Zulu's	6	4	0	2	28	25	8
Los Heredia	6	3	1	2	33	18	7
G. P. Noski	6	3	1	2	25	15	7
Jubilatus	6	2	3	1	30	32	7
Neanthertal's	6	3	0	3	21	15	6
Tronkoteak	6	3	0	3	28	29	6
S. Ind. Ugarte	6	1	2	3	18	25	4
Uglys	6	2	0	4	15	24	4
Kokkas	6	0	1	5	24	39	1
Expert	6	0	1	5	11	52	1
T. San Josepe	6	0	0	6	13	46	0
B. D. L	6	0	0	6	4	50	0
Total	108	48	12	48	476	476	108

B taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Los Motz	6	6	0	0	45	7	12
La Banda	6	5	1	0	28	11	11
Navarros	6	5	0	1	28	9	10
Fasprint	6	3	3	0	25	13	9
Potroak Lorat.	6	4	1	1	24	13	9
Jo ta Akabau	6	4	0	2	37	21	8
Danok Lagun	6	3	1	2	23	17	7
Anbotoste K. T.	6	3	1	2	17	22	7
Gau Azkenak	6	3	0	3	18	16	6
Sibilius Rover	6	2	2	2	14	17	6
Ganbelas	6	2	1	3	17	23	5
Bukanak	6	2	1	3	16	31	5
Totxus	6	2	0	4	26	14	4
Txintxes Osorik	6	1	1	4	12	22	3
Inter de Alima.	6	1	1	4	11	28	3
Maria del Monte	6	1	0	5	5	36	2
M. K. A.	6	0	1	5	14	42	1
Oleee!	6	0	0	6	10	28	0
Total	108	47	14	47	370	370	108

C taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Gnu. Seg. Bilbao	6	5	1	0	21	3	11
New Laso Arregi	6	5	1	0	24	8	11
Adelaida	6	5	0	1	32	9	10
Bar Kajoi	6	4	0	2	41	16	8
Diego Antonio	6	3	2	1	19	17	8
AEK	6	3	2	1	17	15	8
ATB	6	3	2	1	22	19	8
Argi Ibili	6	4	0	2	23	16	8
Taberna Mont.	6	2	3	1	19	19	7
Txokeros	6	3	0	3	19	18	6
Arrasate Press	6	2	1	3	15	16	5
Alaves	6	2	1	3	14	24	5
Aurrera bolie!	6	1	2	3	12	19	4
Aizpun Bila	6	2	0	4	20	35	4
Shaktale	6	1	1	4	15	24	3
Sokoakoak	6	0	1	5	15	28	1
Bayer de Lenitz	6	0	1	5	10	36	1
Whiskeria Linde	6	0	0	6	14	30	0
Total	108	45	18	45	352	352	108

D taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Artzankos Udal.	6	6	0	0	31	8	12
Arrasate Kirolak	6	5	1	0	23	9	11
Camerun's Trikiti	6	4	2	0	29	13	10
Notxingan Flo.	6	4	1	1	24	13	9
Hirei	6	4	0	2	21	15	8
V. C. Daglas	6	3	1	2	33	8	7
Bizkorak	6	3	1	2	20	13	7
Bar Artano	6	3	1	2	21	19	7
Arrasate Comer.	6	3	1	2	13	14	7
Pepelus	6	3	0	3	19	17	6
Ghana	6	2	0	4	20	18	4
Resakas	6	2	0	4	15	20	4
Kakajauri	6	2	0	4	13	18	4
Ezkinako Hontza	6	2	0	4	13	31	4
Nagixak	6	1	1	4	10	25	3
Balaike	6	1	0	5	8	30	2
Atxanta ke te...	6	1	0	5	13	37	2
Sukumurus	6	0	1	5	7	25	1
Total	108	49	10	49	333	333	108

JMA JMA



Azkartasunak garrantzi handia du futbitoan. Aurrelariak defentsari aurrea hartzen dionean, defentsak berak buelta eman eta, arriskua eragozteko, erreakzionatu egin behar du berriro.

EMAITZAK

A taldea

- Tronkoteak 3 Akaitegi Expres 8
- Los Heredia 4 Sum. Ind. Ugarte 4
- Koxkas 7 Los Manchas 11
- Jubilatus 4 Arrasate Kristal. 4
- Talleres SanJosepe 1 Fosforos 16
- Adobe 7 B. D. L 1.
- G. P. Noski 4 Zulu's 5
- Uglys 2 Kriskibalda 5
- Expert 0 Neanthertal's 1

C taldea

- Diego Antonio 0 Gnu Seg. Bilbao 2
- Aizpun Bila 2 Bar Kajoi 13
- Sokoakoak 2 Adelaida 3
- New Laso Arregi 5 Alaves 1
- Aurrera Bolie! 2 AEK 2
- Txokeros 3 Argi Ibili Mapfre 6
- Monterrey taberna 4 Bayer de Leintz 6
- Shaktale 2 ATB 3
- Whiskeria Linde 3 Arrasate Press 5

B taldea


- Los Motz 8 Maria del Monte 0
- Potroak Lorategi 4 Sibilius Rover 0
- Bukanak 6 Oleee! 4
- Anbotoste K. T.4 Ganbelas 3
- Inter de Alimañas 1 Fasprint 6
- M. K. A. 4 Jo ta Akabau 11
- Danok Lagun 2 Navarros 4
- Gau Azkenak 2 Totxus 1
- Txintxes Osorik 4 La Banda 7

D taldea

- Nagixak 2 Ghana 6
- Pepelus 2 Cameruns Trikiti 5
- Sukumurus Anboto 1 Resakas 4
- Artzankos Udalaiz. 8 Ezkinako Hon. 1
- Atxanta ke te merece 2 Kakajauri 5
- Bar Artano 2 Hirei 7
- Arrasate Kirolak 2 Notxingan Flo. 1
- Bizkorak 2 V. C. Daglas 2
- Arrasate Comercial 5 Balaike 3

**ATERA
KONTU!
Beste
kontu bat
ekartzen
duenari
oparia
emango
zaio sari**

Garibai, 7 ARRASATE



**ARRASATE
KIROLAK**

Astore, Nike, Reebok, Auia, Adidas, Converse, Mito, Ellesse, Boreal, Libero, Quicksilver, Le coq sportif, Millet, Saucony, L. A. Gear, etab.

Kontzeziño kalea, 8 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 12 Faxa: 79 92 42



MITARTE GARAI jatetxea

ZABALDU BERRIA

Areantza auzoa (Urkulu)

ARETXABALETA Tfnoa: 79 17 51



Txutak

Aldaketa gutxi

Joan den asteko emaitzek ez dute aldaketa aipagarrikerik eragin aurtengo Zaldibarko futbito-txapelketan, aurrez irabazteko faborito zirenek irabazi egin zutelako.

A taldean Fosforos liderrak, izugarrizko jipoia eman zion Talleres San Joseperi, 16 eta 1 irabazi bait zion. B taldean berriz, Los Motzek ere ez zuen aparteko eragozpenik izan, Maria del Monte taldeari irabazteko, 8-0. C taldeko liderrak, Gnu Seguros Bilbao taldeak gogor lan egin behar izan zuen Diego Antonio taldeari irabazteko, 2-0. Azkenik, D taldean Artzankos Udalaitez erraz irabazi zuen bere partidua, 8-1. Ezkinako Hontzak taldearen aurka.

Datorren asteko ihardunaldiari begira, ez du ematen lehen bi taldeetan aldaketa handirik gerta daitekeenik; hau da, faboritoek irabaziko dute eta galtzeko boletu guztiak dituztenek galduko dute. C eta D taldeetan berriz, pare bat partidu interesgarriak gerta daitezke. *New Laso Arregi*, C taldeko bigarren sailkatuak, *Bar Kajoi*ren aurka jokatu behar du eta. Hauek laugarren postuan badaude ere, inoiz ez dira etsai errazak izaten. D taldean ere, gauzak pil-pilean daude lehen posturako, *Artzankos Udalaitez* liderrak, hirugarrenaren aurka jokatuko du, *Camerun's Trikitiren* aurka. Liderrak partidua galduko balu, bere lidergoa ere gal dezake, bigarren doan *Arrasate Kirolakek* normalean irabazi egin behar diolako *Atxanta Ke Te Merece...* taldeari.

BEÑARDO KORTABARRIA

DATORREN ASTEBURUAN

A taldea

Tronkoteak	Expert
Los Heredia	B. D. L.
Koxkas	Fosforos
Jubilatus	Sum. Ind. Ugarte
Zulu's	Arrasate Kristald.
Neanherials	Los Manchas
Akeritegi Expres	Kriskibalda
Uglys	Adobe
G. P. Noski	Talleres San Jose.

B taldea

Los Motz	Txintxes Osorik
Potroak Lorategi	Jo ta akabau
Bukanak	Fasprint
Arbostote K. T.	Sibilus Rover
Navarros	Ganbeles
La Banda	Oleee!
Danok Lagun	Inter de Alimarias
Gau Azkenak	MKA
Maria del Monte	Totxus

C taldea


Diego Antonio	Whiskeria Linde
Aizpun Bila	Argi Ibilli
Sokoakoak	AEK
New Laso Arregi	Bar Kajoi
Bayer de Lenitz	Alaves
Arrasate Press	Adelaida
Monterrey taberna	Aurrera bolie!
Shaktale	Txokeros
Gnu Seg. Bilbao	ATB

D taldea

Nagixak	Arrasate Comer.
Pepelus	Hirei
Sukumurus Anboto	Kakajauri
Artzankos Udalaitez	Camerun's
Notxingan Florest	Ezkinako Hontzak
Balaikae	Resakas
Arrasate Kirolak	Atxanta ke te...
Bizkorrak	Bar Artano
Ghana	V. C. Daglas

BRANKA taberna


Zarugalde, 1 ARRASATE
Tfnoa: 79 21 13



EGIDO

Automobilarentzako ordezko piezak

Lagarra Pabilioa ARRASATE Tfnoa: 76 62 11



Pintura ekologikoak Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex.
Neurriko felpudoak. Pertsiana biritak.
Ehunezko hormak.
Kortxoak. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

LORATEGI taberna

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67

Joaquina, Victor eta Ana, Aita Menni Ospitale Psikiatrikoko hiru langile dira. Psikiatrikoan bakoitzak bere lana dauka: Ana psikologoa da, Joaquina monitorea eta Victor giza-kultur dinamizatzailea. Hirurek bultzatuta eta beste hainbat langilek lagunduta, Euskal Herriko Hirugarren Adineko lehen Antzerki-Ihardunaldiak antolatatu dituzte, Aita Menni Ospitalean bertan.

— Zer dela eta Antzerki Ihardunaldien antolaketa?

— Ihardunaldi hauek Errehabilitazio-Zerbitzuko lanaren ondorioz sortu dira. Proiektu honen bidez, bi gauza lortu nahi izan ditugu bereziki: barrura begira; Ospitaleko langile eta gaixoek elkarlanean ihardutea; kanpora begira, inguruarekiko harremanak sendotu nahi dira, ondo bait dakigu jendeak psikiatrikoan daudene-kiko irudi ezkorra duela.


— Zer prozesu eraman duzue antolatze-lanetan?

— Ideia bota genion zuzendaritzari. Baiezkoa erantzun ziguten eta antolakuntzarako batzordea eratu nahi izan genuen. Ospitaleko langileei proiektuan parte har zezaten gonbidapena egin genien eta 50en batek izena eman zuten. Behin antolakuntzarako batzordea eratu eta gero, azpi-batzorde pila bat sortu ziren, lan desberdinei erantzuteko: informazio-arena, ekonomi batzordea, harreman-batzordea, prentsa-arena, pertsonal-batzordea, gaixoen ekintzak bultzatzeko batzordea, euskararena, antzerki-batzordea eta Ihardunaldien batzordea.

— Hori nolabait egitura eratzeko litzateke; baina kanpora begira, zer egin da?

Ana, Victor eta Joaquina

Aita Menniko langileak



— Antzerki-Ihardunaldi hauetan ahalik eta jende gehienak parte har zezan nahi genuen. 400en bat gutun bidali genituen Euskal Herriko toki askotara, hirugarren adineko egoitza eta ospitale psikiatrikoetara. Jaso genuen erantzuna oso ona izan zen, zazpi talde prest agertu bait ziren ihardunaldietan parte hartzeko. Zazpi horietatik, barne-arazoak medio, azkenean bik atzera egin zuten eta beste hiru gonbidatu behar izan ditugu.

— Aspalditik lanean?

— Bai, otsailetik. Gure lana ez dugu bakarrik An-

tzerki-Ihardunaldietara mugatu, antzerkiarekin zer ikusia izan dezakeen makina bat ekintza ere antolatu dugu: gorputz-heziketa ikastaroa, makilaiatzakoa, jantzigintza-ikastaroa.... Gaixoek antzerki-mundua landu dute, dituen alde desberdinetatik. Kartel-lehiaketa bat ere antolatu genuen, gero Antzerki-Ihardunaldiak iragartzeko; gaixoek komiki bare egingo dute, Ihardunaldien inguruan ematen diren berriekin. Azkenik, giro horretaz kutsatuta, gaixoek "Alaitasuna" antzerki-taldea sortu zuten.

— "Alaitasuna" k hartuko

du parte Ihardunaldietan?

— Jakina, ilusio handiz gainera; "Baserritarrak" lana antzetzeko dute, guk geuk egokitutako lana hain zuzen.

— Zer moduz egiten dute?

— Hasieran edonori moralajateko modukoa zen, oso txarrak ziren. Orain, ordea, ondo egiten dutela esango genuke, 3. adineko edozein taldek bezain ondo. Duela egun batzuk, ETBkoak entseiu bat grabatzera etorri ziren; normalean baino urdu-riago, baina egun horretan ere antzeppen ederra egin zuten. ETBkoek ere gauza bera esan ziguten eta datorren 28an, jende aurrean, ziur gaude entseiuetan bezain ondo egingo dutela.

— Ihardunaldietan parte hartzeko gonbidapena, zergatik zuzendu zaie hirugarren adineko taldeei?

— Aita Menni Ospitalean 490 gaixo ditugu, %50ak 65 urte baino gehiago ditu. Pertsona hauek, nahiz eta atentzio psikiatrikoa behar eta berezitasunen bat izan, ez dute diferentzia handiegirik egoitzetan dauden jubilatuekin: adinean pare samarrean, fisikoki baliatzeko arazoak, isolamendu-egoerak.... Jendeak uste du pertsona hauek barruan edukitzekoak direla, baina atera daitezke eta beste jende batekin harremanak izan, bestela alferrik gabiltza errehabilitazio lanetan.

— Zerbait onik aterako da esperientzia honetatik?

— Goizegi da esateko, baina ondo aterako da. Eki-men honek entzumena izan du eta dagoeneko deitu digute informazioa eskatuz, gaixoekin kanpora joateko bi gonbidapen ere izan ditugu. Azkenean, psikiatrikoa gauza zabala dela erakutsi nahi dugu eta bertan dauden gaixoek giltzapean egon beharrik ez dutela.

— **“Gure gaixoek -Alaitasunakoek- edozein taldek bezain ondo antzezten dute”**

Prentsa lokalaren topaketak Arrasaten

Azaroak 22 eta 23rako, ostiral eta larunbaterako alegia, Estatu-mailako Prentsa Lokalari buruzko Lehen Ihardunaldiak antolatu ditu AED Kultur Elkarteak. Ihardunaldiak Lan Kide Aurrezki, Gipuzkoako Diputazio, Nafarroako Gobernu eta Arabako Foru-Aldundiaren laguntzarekin antolatu dira .

I hardunaldi hauek aurrrera eraman ahal izateko batzorde antolatzaile bat osatu zen, batzorde-burua Gorka Knörr delarik. Gainerako batzordekideak, honako hauek dira: Iñan Arana, Asier Aranguren, Jose Felix Diaz de Tuesta, Jose Ramon Elortza, Javier Marcos, Iñaki Mendiguren eta Estepan Plazaola.

Egitaraua

I hardunaldi hauetara, guztira 120ren bat pertsona etorriko dira; horietatik 70 ordainduta eta gainontzekoak gonbidatuta. Etorriko diren gehienak aldizkari ezberdinetako arduradunak eta Udaletako euskara-teknikari eta kultur teknikariak izango dira. Lankide Aurrezkiko Aretoan izango diren Ihardunaldietan gai ezberdinak jorratuko dira, txosten-irakurketa, mahainguru eta, kasu guztietan, ez-

tabaiden bidez.

Ihardunaldiei Azaroak 22an, ostirala, goizeko 9.30etan emango zaie hasiera. Txostenen banaketa egin eta Ihardunaldien aurkezpenaren ondoren, "Prentsa lo-

kala eta komarkalaren potentzialitatea"ri buruz Madrilgo Unibertsitate Complutenseko Joan Maciá irakasleak ihardungo du.

Arratsaldean, "Prentsa lokalaren ezarpen eta zabal-

pena" gaiarekin mahaingurua: Luis Prados Frantziatik, Asier Aranguren Euskal Herriatik eta Toni Sirera Kataluniatik izango dira mahainguruko partaideak, ondoren eztabaida burutuko delarik bertan daudenen artean. "Kataluniako prentsa lokal eta komarkalaren Elkartea"ri buruzko txostena Jordi Vallmajó kazetariak irakurriko du.

Hurrengo egunean, Azaroak 23, goizean "Prentsa lokaleko enpresen egitura ezberdinak" izenburupean mahaingurua. Bertan, bost aldizkari ezberdinetako ordezkariak: *El 9 Nou*, *Arrasate Press*, *Getxoberri*, *Tiipi-utapa* eta *La Fura* aldizkarietakoak, hain zuzen ere. Ondoren, Miguel Angel Elkoroberezibar, Bergarako Berrigara aldizkari zuzendariak, "Prentsa lokalaren finantziabideak" aztertuko ditu.


Arratsaldean, Matias Escribano kazetariak "Banaketaren arazoa prentsa lokalean" gaia jorratuko du, eta Ihardunaldi hauek bukatze-



Prentsa Lokalari buruzko Ihardunaldiak aurkezteko prentsaurrekoa eman zen Donostian.

ko Joxe Aranzabalek, Arrasate Press eta Arrasate Telebistako sortzaileetarikoa eta lehen zuzendariak, "Herri-aldizkari baten tajuketa"ri buruz hitz egingo du.

Honetaz gain, aretotik kanpo stand bat jarriko da hiru ordenadore eta hiru lagunekin, jendeak autoedizioari buruz dituen galderi erantzuteko. Hiru lagun horiek, han dauden bitartean, larunbatean Arrasate Pressek ihardunaldiei eskainiko dien ale berezia maketatuko dute. Horrela, jendeak denbora laburrean eta autoedizioaren bidez aldizkari bat nola egin daitekeen ikusteko aukera izango du.



Herri mailako komunikabide gehienetan autoedizioa erabiltzen da.

Herri-prentsaren eboluzioa

Euskal Herrian prentsa lokalean eman den hazkundera izugarria da. Arrasate Press sortu zenez geroztik beste hainbat sortu dira eta nahiz eta etorkizun erraza ez izan, aspaldian agertu direnak finkatuta daude. Herri-aldizkariaren ohizko finantzabideak Udalak, Mankomunitateak, Jaurlaritza, Diputazioak eta herri-merkatariak izaten dira.

Azken hiru urteotan, Euskal Herrian 24.000 ale banatzen dira astean euskaraz; honek esan nahi du 75.000tik 100.000ra artean daudela euskarazko irakurleak. *Argia* aldizkariaren harpidetza kenduta, 19.000 inguru harpidedun berriak dira; hauek, beraz, prentsa

lokala irakurtzen dute. Azken hiru urteotan euskarazko irakurleen kopurua laukoiz-

tu egin da. Herri-prentsaren arrakasta nabarmena da, zergatik? Hurbileko gaien eta

herriko jendearen berri ematen duelako.

Helburuak

Batetik, Euskal Herrian dauden aldizkari guztiek elkar ezagutzea, batzuek ez bait dute besteen berri. Bestetik, kanpoko aldizkariak, hau da, estatu-mailako eta beste estatu batzuetako aldizkariak nola egiten diren eta nola funtzionatzen duten ezagutzea.

Aldi berean, prentsa lokalaren berri ematea eta aldizkaria egin nahi dutenei bidea bilatzen laguntzea da Ihardunaldi hauen asmoa, hau da, besteak beste, aldizkari bat nola antolatzen, tajutzen eta banatzen den ez dakien jendeari guzti horren berri ematea.

Ale berezia

Prentsa lokalari buruzko Ihardunaldietan 24 orrialdeko ale berezia aterako da, Ihardunaldietara joango den jendeari emateko eta joaterik izango ez dutenen, kazetaritzako ikasleen, etab.en artean banatzeko. Ale horretan, ostiraleko Ihardunaldian egindakoaren berehalako informazioa emango da eta larunbaterako kaleratuko. Egun batetik bestera autoedizioaren bidez alea atera daitekeela frogatzeko asmoa dago. Ale horretan egongo dena zera izango da: Hiru elkarrizketa, Gorka Knörr, Matias Escribano eta Joan Maciári eginak, hain zuzen ere; erreportaia grafikoa, bertan hartutako argazkiekin; *La Fura* Kataluniako aldizkariari buruzko erreportaia; han bildutako pertsona batzuei inkesta ere egingo zaie; kolaborazioak ere sartuko dira; eta azkenik, kanpoko prentsan Ihardunaldiei buruz idatzitakoa agertuko da.

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea, 30 ARRASATE Tfnoa: 79 89 89



Goitibeherak Arkarazon

Nahiz eta eguraldiak batere lagundu ez, Arkarazoko jaietako antolatzaileek nahiko animo izan zuten goitibehera-proba aurrera ateratzeko. Antolatzaileek ezezik, partehartzaile eta ikusleak ere Aretxabaletako auzo horretaraino hurbildu ziren, ez gutxi gainera. Proba bi kategoriatan banatu zen, handi eta txikietan, hain zuzen. Biak euripean igaro ziren eta, zorionez, ez zen aparteko istripurik gertatu. Goitibeherenaz gain, herri-kirol saioa antolatu zuten Arkarazon; han izan ziren Iñaki Perurena harrijasotzen eta Saralegi anaiak aizkoran.



Erakustaldi eskasa


Squash erakustaldia antolatu zen pasa den astean, Musakolako kiroldegian. Erakustaldira, ahalik eta jende gehien eramateko, lau txapeldun ekarri zituzten Arrasatera, bi partidu joka zituzten. Egia esan, ahaleginak ez zuen aurrez espero zen erantzunik izan, guztira bost-sei ikusle baino gehiago ez zirelako bildu.

Hurrengo partidua

Okerrago ezin zitzaizkien hasi gauzak Mondra taldeko jokalariei joan den aste partiduan. Baloia zelai-erditik atera bezain pronto, irundarrek gola lortu zuten. Hortik aurrera, arrasatearrei dena gaizki atera zitzairen. Arauzko larogaitamar minutuak pasatu ondoren, markagailuak 0 eta 4ko emaitza adierazten zuen, aurtengo denboraldian Mondrak izan duen okerreana. Hoberena, lehenbailehen ahaztea, partidu hortatik ezin bait da ezer onik atera.

Azken emaitzen arabera, badirudi arrasatearren joko-maila asko jaitsi dela, azken lau partiduetan hiru puntu bakarrik atera dituzte eta. Astearteko entrenamenduan, entrenatzen baino gehiago jokalaria eta entrenatzailea hitz egiten jardun ziren, egoerari buelta eman nahian. Dena dela, gauzak ez daude hain gaizki, Mondrak oraindik bi positibo dauzka eta.

Igandean, zita berriz Atxabalpen, arratsaldeko 3.30etatik aurrera eta Elgoibarren aurka. Partidu zaila da, elgoibartarrak sailkapenean ondo egoteaz gain, ondo dabiltzalako. Garaipea eskuratzea garrantzitsua izango litzateke arrasatearrentzat, oraindik edonori irabazteko gai direla sinetsiko ahal izateko, batez ere..



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

J. RAMON BARANDIARAN

Arrasateko pilotari profesional berria

PODIUMA



Juan Ramon Barandiaran pelotari gazteak, bere aitaren pausoak jarraituz, zortzi-bederatzi urte zituenetik pelota munduan dihardu eta momentuz inoz ez du sentitu pelota uzteko gogorik. "Lehenengo Aretxabaletako pelota-taldean hasi nintzen eta gero hamalau urterekin Arabako federazioan sartu nintzen. Aramaioko talde batekin jokatzeko nuen eta astean bi egunetan entrenatzen nintzen ordu t'erdiren bat egun bakoitzean". Gaur egun Mutrikuko Jolas-Nahi profesionalen enpresarekin egina du kontratua. "Orain profesionalen munduan sartu naiz eta seguruenik larunbat honetan edo hurrengoan debutatuko dut. Astean hiru bat egun aritzen naiz entrenamenduan, Aramaion, talde afizionatuan sartzen nuen beste ordu sartzen. Dena dela, komeni izanez gero, ordu gehiago ere sartu ahal izango nituzke".

Mutrikuko Jolas-Nahi pilotari-enpresa ez da pilota-munduan famatuenerikoa. Normalean, bertara joaten diren pilotari gehienek tranpolin gisa erabiltzen dute, gero beste enpresaren batera joateko, maila handiagokora, hain zuzen ere Arrasatear gazte honen nahiak ere,

hortik doaz. "Mutrikuko enpresan ondo banabil Bergarako enpresara joatea gustatuko litzaidake, han pelotari hobeagoekin lehiatzeko aukera izango dudalako. Mutrikuko enpresan ez dago horrenbeste aukera profesional onekin jokatzeko".

Profesional gutxi daude pelotatik bakarrik bizi direnak, punta-puntakoak bakarrik, gehienak beste lan bat dute. "Gustatuko litzaidake pelotatik bakarrik bizitzea, baina horretarako oso ona izan behar da, nik beste lan bat topatuko nuke eta biak egingo nituzke". Lanbide honetan, beste askotan bezala, hasierak izaten dira gogorrenak eta hortaz Juan Ramon Barandiaranek ez dauka garbi etorkizunak zer ekarriko dion "Ez dakit nola erantzun dudak profesional-mailan. Ahalik eta hoberen egiten saiatuko naiz eta ikusiko dugu noraino iristen naizen". Bitartean, aitaren kontseilurik ez zaio faltako behintzat.

◆ Pilotan gaizki

Azken aldian, Gipuzkoako taldeen arteko Pilota-Txapelketaren barne, Arrasateko pilotariak ez dabilta emaitza onak lortzen. Joan den asteko neurketetan, txikiak jokaturako hiru partiduetatik bi galdu egin zituzten eta nagusiak ere ez ziren gehiagorako gauza izan; haiek azkoitiarren aurka eta haiek zumarragarren aurka. Datorren larunbatean, Iturripen, 11 etatik aurrera Arrasate eta Idiazabalgo pilotariak neurtuko dituzte indarrak.

◆ Ziklo-kros denboraldiaren hasiera

Arrasateko txirrindulari gazteek pasa den astean eman zioten hasiera aurtengo Ziklo-kros denboraldiari. Larunbatean, Bizkaiko Zallan burututako jubencil-proba Alberto Roldanek irabazi zuen eta Zigor Araolazak bigarren postua lortu. Igandean, berriz, kadete, jubencil eta afizionatuak bildu ziren Altsasun. Kadete-mailan, Zigor Urain eta Ruben Cabero bederatzi eta hamargarren izan ziren; jubencilan, Zigor Araolaza hamargarren eta Alberto Roldan hamaikagarren; azkenik, afizionatuetan Iñigo Roldanek bigarren postua eskuratu zuen.

◆ Saskibaloian denetarik

Centraljet taldeko gizonetako ez zuten eragozpenik izan Xerox Getxo taldeari irabazteko, 89-76. Garaipen horri esker, Txus Brizuelaren mutilek sailkapeneko hirugarren postua berreskuratu dute. Datorren astean, Paulles taldearen aurka jokatu dute; partidua zaila, sailkapeneko laugarren postuan bait dago hau. Nesken taldeak Talde Berri-ren aurka jokatu zuen Muskolan, 41-51 galtzeko. Hurrengo partidua, sailkapeneko bigarren postuan dagoen Donostia taldearen aurka.

ZUBIZARRETA
TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE Tfnoa: 79 15 65

Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07

KONTUZI!



TELE

**Informazioa
eskatzeko
dei egin
77 08 15
tfno.ra**

**SUKALDE-
-ALTZARIAK**

- Iker € 79 00 43
- Joxe Aranzabal
€ 79 18 92

Profesional,
merkatari,
enpresari! Zure
zerbitzuak
arrasatear guztien
etxeetara iristea
nahi baduzu, ATBko
TELETESTUA da
behar duzun
publizitate-bidea.

Pintore, iturgin,
igeltsero eta beste
edozein
profesionalen
zerbitzuak behar
badituzu, jo ezazu
ATBko TELETESTUra,
behar duzuna
hantxe aurkituko
duzu eta. Egunero
zure zerbitzura,
goizeko 9etatik
arratsaldeko 8ak
arte.

TES

ARGAZKIDENDAK

- Pedro Luis € 79 75 15
- Laso-Arregi € 79 12 75

TUA

TABAKODENDAK

- La Rotonda € 79 20 13

IGELTSEROAK

- Jose Grille € 79 69 39

KIROLDENDAK

- Arrasate Kirolak
€ 79 46 12

**EDARI-
-BANATZAILEAK**

- Jose Antonio Hernandez
€ 79 15 32

OPARIDENDAK

- Goiztiri € 79 87 43

**ETXERAKO
ELEKTROTRESNAK**

- Aranzabal € 79 15 16
- EYA € 79 03 84

Ikastolak eta homologazioa

Zer da haur kalitetuaren poztasuna, komunikabideetan honelako interesa, gurasoen kezka, sindikatuen erabateko gaitzespena, Ikastolako Elkartekoan halako ahalegina eta gainerako giza taldeetan ulertu ezin daitekeen pasotismoa sortarazi duenaren atzean dagoena?

Argi dago etorkizuneko Euskal Eskolaren ereduaren oinarriko zerbait kolokan dagoela.

Konfederakuntza eta sindikatuen artekoa alde batera utzirik, beraren esku bait dago beharrezko den kontsentsura iristea, arazoaren mamiari gure erreflexioa

eskaini nahi genioke:

- Etorkizuneko Euskal Eskolak autonomiaren eta kalitatearen lekuko izan behar du ikastolen asmotan.

- Aldarrikatutako autonomia lege, dekretu eta administralgoaren jokaerak eskola mugatu nahi duen marko hertsian itota geratzen da.

Ikastolen apostua marko mugatzaile horretatik ihes egitean datza, ikastetxe bakoitzaren Hezkuntz Proiektua ahalbideratuko duen mugimendu bereizle bat sorteraziz.

- Kalitateak irakasle-goaren dedikazio handiagoa eskatzen du. Gaur egun Erreformak bultzatzen dituen Hezkuntz Proiektuak



irakasle-taldean lan bateratuan dute oinarria. Gure balarako zenbait ikastetxe horrela ulertu dute hau jadanik.

- Ez da bidezkoa homologazioaz hitzegitean lan ordainsariari dagokienez bakarrik ulertzea eta ez la-

norduei dagokionez.

- Bai lanari, zein ordainsariari dagokionez, irakasle-goak gainerako gizarte mailan pareko "status" a izatea eskatzen du giza solidaritateak.

- Irakaskuntza mundurako eta etorkizuneko euskal gizarterako, honelako eragina izan dezakeen gatazketatik kanpo geratzea kaltegarria litzateke eta, gizartea egoeraren garrantziaz jabe dadin komeni da.

1989ko uztaillean Frantziako Parlamentuak botatutako "Orientazio-Legeak" Heziketa "Etorkizuneko urteetarako lehentasun nazionalizat" jotzen du.

FELIX ORMAETXEA

HEZIBIDE

BIDEO-EMANALDIA

Indiana Jones zorigaiztoko tenpluan

Tokia: Monterron Kultur Etxea


Eguna: azaroak 23, larunbata

Ordua: arratsaldeko 4.30etan

Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara-Batzordea




The Damned Txibistotik pasa zen...

... baina ez zuen aztar-narik utzi; ez nigan, behintzat.

Kartela erakargarria genuen: The Damned, Punk-rock talde historikoa, diska txikia kalera-tu zuen estrainekoa (Pistols-ek baino lehenago). Gerora hamaika formazio eta makina bat partaide ezagutu, eta estilo oso ezberdinak jorratu dituena. Baina, eta hau ezustea, 77ko formazioa iragartzen zitzaigun (taldearen historian bigarrena, iada Brian James kitarrajoleak alde eginda); eta egia zen: Captain Sensible (baina kitarran, eta ez baxuan, behar lukeen bezala), Dave Vanian, Rat Scabies eta Paul Gray.

Orduko formazioa, orduko itxura (saiatu ziren bederen), orduko kantak («Smash it up» eta «I feel allright» gogoratuenak)... Baina inola ere ez orduko giroa, guztiok espero genuena. Hotza, hotza eta



hotza. Ez ziren batere ahalegindu.

Txibisto erdi beteta (edo erdi hutsik, zeuk aukeratu), ordubete eskaseko kontzertua, jendea moskeatuta (batek baino gehiagok alde egin zuen amaitu aurretik)... Zertara etorri ziren? Kunplitzera? Diru bila?

Indarrean eta komunikazioan, *Parabellum* garaile. Kaleratu berri duten «Bronka en el bar»

beren bigarren diskoa aurkeztu ziguten ahal izan zuten indar eta gogo guztiaz. Halere, talde lokalekin betiko jarrera, ikusle gutxi, Barakaldotik animatzera etorritako jarraitzaile sutsuez gain. Baina demostratuta gelditu zen bertakoak ez duela zertan kanpoko baina eskasagoa izan. Emaizta: *Parabellum 1 - Damned 0*

PATXI MONTERO

◆ Blues Brothers Txibiston

Larunbat honetan, Bergarako Txibiston, munduko soul-talde ezagunenetako bat dantzatzeko eta gozatzeko aukera. Sarrerak salgai dituzu 2.000 PTAtan. Kontzertua 11etarako dago iragarrita, *The Allnighters* gasteiztar Rithm & Blues talde bikainarekin telonero gisa.

Rock kontzertua

SS-77 Arrasateko talde musikala 15 hilabete pasa eta gero berriro dago bidean eta Euskal Herriko hainbat gaztetxetatik zehar itzuli bat prestatu du. Larunbat honetan, Azaroak 23an, Aretxabaletako gaztetxean, gaueko 10etatik aurrera, SS-77 taldeak ordubete inguruko saioa eskainiko du.

Gorosarri lan eta lan

Gorosarri Abesbatzari ez zaio lanik falta. Eskoriatzarrak, hilaren 30ean Andoainen kontzertua eskainiko dute eta abenduaren 21ean Eskoriatzan Mozarten «Koroape-neko meza» kantatuko dute. Laster Eduardo Gorosarriren omenez, Gorosarri eta Arrasate Musikalek grabatutako kaseta ere salgai jarriko da.

Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe, 5 Etxabea. Erguin auzoa. ARRASATE

Tfnoa: 79 04 46

◆ Arrasate Musical Gasteizera

Larunbat honetan, hilak 23, Arrasate Musical-eko orkestak Manuel Iradier abesbatzarekin batera, kontzertua eskainiko du Gasteizko Karmeldarren eleizan. Aipatutako bi taldeek, Mozart handiaren azken lana eskainiko dute "Requiem" a, hain zuzenera. Aurten, Mozart-en heriotzaren bigarren mendurrena betetzen dela eta, antolatu da aipatutako kontzertua. Seguruenik, datorren hilaren 5ean, talde biek kontzertu bera eskaini ahal izango dute Arrasaten bertan.

◆ Trikitilarien ereserkia

Santamas egunari eskainita, Trikitilari Eskolakoek egun horretarako doinu berezia duen kantu berri bat prestatzen ari dira. Kantu horri letra jartzeko Jon Sarasua, Aitor Sarasua eta Jon Iñaki Izarzelaiarekin jarri dira harremanetan. Hori gutxi balitz, Trikitilari Eskolakoek beren ereserki edo himnoa ere asmatu dute, letra lehen aipatutako bertsulariek jarri diotelarik.




Iñaki Maidagan Flauta ondo jotzeko egunero entseiatu behar da

Iñaki Maidaganek 26 urte ditu eta dagoeneko berak ikasitakoa beste batzuei irakasten dabil, flauta hain zuzen. Berak, lehenik Arrasate Musikalen ikasi zuen eta gero, ikasketak Donostiako Kontserbategian amaitu zituen.

— Zergatik flauta?
— Hasieran kitarra ikasi nuen baina gero utzi egin nuen. Flautarekin hasi nintzen, nolakoa zen ikustearren. Gero, arauzko 6 kurtsoak egin nituen eta ikasketak amaitu.

— Sei urte, ez da denbora asko?

— Kurtsoak dira sei, urteak gehiago izan ziren. Arrasate Musikalen Primitivo Aspiazurekin ikasi nuen eta bertan ikas zitekeen guztia ikasi ondoren, Donostiako kontserbategira joan nintzen. Han denbora asko galdu nuen, jarri ziguten irakasleak ezer ez zigulako irakasten. Beraz, neure kontu hasi eta Kontserbategia utzi nuen. Ez nekien ondo edo gaizki jotzen nuen; hortaz, ikastaro batean izena eman eta esan zidaten nahiko ondo jotzen



nuela. Horrek animatu egin ninduen zertxobait; berriz ere Donostiako Kontserbategian izena eman eta ikasketak amaitu nituen.

— Orain irakasle, ez?

— Bai, Elgoibarren ematen ditut eskolak. 22 ikasle dauzkat eta orain oso lasai bizi naiz, neuri gustatzen zaidana egiten.

▼
Umeentzat flauta azkena da, aurrez beste gauza asko dituzte.

— Haur horietatik aterako da jeniorik?

— Oso zaila da hori. Haur gehienentzat flauta azkena da, aurrez futbola, solfeoa, ingelesa, judoa etab. dituzte. Normalean ez dute interes gehiegi erakusten. Talde horretan baliteke hiru edo lau lagunek ondo jotzen ikastea, gainontze-koak seguruenik ez.

— Flauta ondo jotzeko, zer behar da?

— Egunero-egunero lan egin eta sartzen diren orduak ondo sartzea, horixe da garrantzitsua.

— Zailena zer da?

— Intentsitatea, tonoa eta espresibitatea mantentzea. Jende askok uste du, segidan zenbat eta nota gehiago egon interpretazioa zailagoa dela, eskuak azkar mugitu behar direlako, baina ez da horrela.

— Flauta jotzeaz gain, besterik egiten duzu?

— Goikobalun nabil eta oso gustora gainera. Garai batean "Cantilena" izeneko hirukotea ere prestatu genuen, txelo, piano eta flautaz osatua, baina kontzertu bat eman eta gero utzi egin genuen, bakoitzak geure lanak bait genituen.

Berango



**Sukalde-altzariak,
mahaiak eta
aulkiak**

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

Gazteok, zer egin?

Arrasateko gazte gehienek bizimoduak ez du ezer berezirik. Bizimodua bere kasa ateratzeko denbora pasatzea: batzuek ikasten, etorkizun beltz honek zer emango dien galdezka; eta beste batzuek, ikasteaz nazkatutik, diru pixka bat emango dien lan baten bila, edo zortea izan badute, soldata bat jasotzen.

Baina hau ez da guk espero dugun guztia, edo ez luke behintzat izan behariko, gureak bait gara eta, gure ustez, gazte izateak gauza askotan desberdindu behariko gintuzke jende nagusiaren bizimodu eta pentsakeretatik.

Gazte gehienok egiten duguna hauxe da: Gauza horietan dihardugun bitartean, horri esker daukagun dirua (gutxi, ikasle izanez gero) azkar gatatatu, kontsumitzen erakusten digun gizarte honek irakatsi bezala. Zertan? Herri honetan eta beste askotan, gazte gehienok geure denbora libre "aprobetxatzen" dugun eran: tabernetan.

Eta ezin da hau Arrasateko gazte guztiei buruz esan, baina gehiengoak zeharo pasiboa da. Izan ere, lehen esandakoa da



gehiengoak egiten duena; eta gure ustez, gazte izatean daukazun sasoia, gogoia, ingurunearekiko desadostasuna eta gauzak egiteko indarra ezertarako ez erabiltzea da hori. Orain, gazte izanda erabiltzen ez badugu, zer demontre egingo dugu nagusiak izatean? Ba, ezertxo ere ez.

Agian, zera pentsatuko duzu: Baina zer egin dezaket nik herri honetan? Eta ez da erraza galdera honi erantzutea egungo egoeran. Herriak, edo Udalak hobeto esanda, ez digu gauza handirik ematen eta kexatu egiten gara. Baina zer eskatuko diogun pentsatzean, zera etortzen zaigu burura, jendeari ez zaiola gauzak egiteko gogoia daukan antzik ematen, edo gogoia badauka, erakutsi

egin behariko lukeela /genukeela.

Hau "gurpil zoroa" izan daiteke: Udalak ez du gauza handirik eman nahi, jendeak ez duelako ezer egin nahi.

Horregatik, aurki daitekeen soluziobidea hau da: gizarte kontsumista honek inposatu digunetik (guk geure buruari inposatu diogunetik) pixka bat behintzat irtetea. Ez izatea hain "pasiboak", eta bakoitzak atsegin duen zerbait egiten hastea, norberari gustatzen zaion moduan. Aktiboak izan eta zerbait egitea, baina ez hain pobrea den bizimodu *standard* horretan hondoratzen jarraitu, gero eta gehiago hondoratuz, zailagoa delako beste gauza batzuk ere egitea.

Zuk nahi duzun aktibitate edo *roilo* hori Udalak noiz erraztu edo lagunduko duen zain egon beharrik ez daukazu.

Zuk egizu, eta beharbada Udala ere hasiko da konturatzin zerbait egiteko gogoia dagoela eta erraztasunak ematen. Baina gu geure kasa egiteko edo egiten hasteko gai bagara, geuretzat hobeto. Honek gauzak egiteko indarra emango ligukeen benetan. Eta hori da gu gazteok jende nagusi-gandik desberdinduko gintuzkeena. Guk uste dugu, edo batzuek behintzat bai, gizarte hau ez dela gure gogoko, baina esan bakarrik egiten dugu. Eta hori ez da nahikoa, ezta "nahiko"ra inguratu ere. Gu gara gizartea, edo behintzat gizartearen zati bat.

Egin dezagun geure kasa, ahal badugu, bestela badakizue nola bukatuko dugun: instituzioek erraztasunik ematen ez zigutelako, ezer egin gabe alferrik galdutako gaztetasunari buruz amorratuta pentsatzen, zahartuta, apalankatuta eta puteatuta egoten garenean.

Bakoitzak bere erreflexioak egin ditzala.

GAZTETXKO ASANBLADAK

ITSASKI

arrandegia

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate 79 98 94

Gabriel Elorriaga Dka.

Loditasuna • Zelulitia
Zelulolipolisiaren
tratamendua

Santa Kruz, 24-1ª (1ª C Eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

HUETO Doktorea

Eztarria, sudurra,
belarriak

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate



ETXEPARE - BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50

ETXEBIZITZAK

- **Bilbon ikasle-pisua osatu nahi nuke.** Tfnoa: 79 24 51. Nerea.
- **Hiru langile gara Arrasaten alokatzeko pisu baten bila.** Tfnoa: 79 51 49.
- **Bi oheko gela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Etxebizitza baten bila gabiltza Arrasaten.** Dei egin lanorduetan 79 02 11 (Alberto) eta 79 36 11 (Izaskun) tfno. etara.
- **Munarren etxebizitza salgai.** Eguzkitsua, eraberritua, sukaldea guztiz ekipatua, 2 bainugela, 3 logela, egongela, trastelegia, berogailua gas naturalaz, etxe guztian musika sistema, satelitezko TB gela guztietan, terraza polita ikuspegi ederrarekin, telefonoa, sotoa, garajea aukeran. Tfnoa: 77 02 81. Gaueko 9.30etatik 11etara.
- **Santa Teresa 6 zeb., 3. ezkerreko dagoen etxebizitza salgai dago eta portal berebean dagoen bezero oneko ileapaindegi lokala.** Tfnoa: 79 03 64

- **Etxeko lanak egin edo umeak eta pertsona nagusiak zainduko nituzke.** Tfnoa: 79 54 03
- **Neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko.** Tfnoa: 79 90 57. Aretxabaleta.
- **Eguerdiko 12.30etatik 1-etara euskarazko mintzapraktika-klaseak emateko Arrasateko pertsona bat behar da.** Dei egin 76 15 76 tfno. ra arratsaldeko 8.30etatik aurrera. Reyes.
- **Igelesezko klase partikularrak behar ditut.** Dei egin 8etatik aurrera 79 72 92 tfno. ra. Marisol.
- **Zure lana utzi barik 10.000 PTA irabazi nahi badituzu, dei egin 77 14 81 tfno. ra.**
- **Neska prest etxeko lanak eta garbiketa orokorrak egiteko.** Tfnoa: 79 98 19.
- **Neska euskalduna behar da goizez ume bat zaintzeko eta arratsaldean etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 94 92.
- **Magistaritza eskolako ikasle batek OHoko klase partikularrak emango lituzke.** Dei egin 79 08 00 tfno. ra.
- **Lanak ordenadoren inprimatuko nituzke.** Dei egin 7etatik 9etara 79 58 72 tfno. ra.
- **Fisikako klaseak (BTI 2. kurtsoa) emango nituzke.** Tfnoa: 79 37 60.
- **Frantseseko klase partikularrak emateko irakaslea behar da Aretxabaletan.** Dei egin 79 02 96 tfno. ra iluntzean.

- **Oso egoera onean dagoen eta egurrez nahiz ikatzez dabilen berogailua salgai.** Tfnoa: 79 45 80
- **Orbea furia bizikleta oso egoera onean salgai 10.000 PTAtan.** Dei egin 79 41 71 tfno. ra 8etatik aurrera.
- **Logelako altzariak, armaru, komoda, etab. (somierra eta koltxoia ezik) egoera onean eta merke.** 8etatik aurrera 79 41 71 tfno. an.
- **Olivetti Linea 98 idazmakina salgai.** Tfnoa: 79 11 44. 9etatik aurrera. Miren.
- **Renault Express SS-AC egoera onean eta oso merke salgai.** 45.000 Km. Tfnoa: 79 82 41.
- **Pegaso J4 furgoneta egoera onean salgai (6 urtekoa).** Dei egin 79 26 81 eta 77 01 79 tfno. etara.
- **4 tokitako sofa salgai.** Estreinatuta berria eta oso egoera onean, modernoa eta oso merke. Deitu lan orduetan 79 62 80 tfno. ra. Rosa.
- **80 zentimetroko somier eta koltxoi berri-berriak salgai.** Tfnoa: 79 62 80. Rosa.

LANA

- **Fisikako partikularrak behar dira BTI2. kurtsoa.** Tfnoa: 79 37 60.
- **Injinerutzako ikasle batek klase partikularrak emango lituzke (BUP, COU).** Dei egin 88 28 63 Tfno. ra. Aitor.
- **Ingeleseko klase partikularrak emateko irakaslea behar da.** Tfnoa: 77 12 41 Agurtzane.
- **Etxeko lanak egiteko eta umea zaintzeko prest dagoen emakumea behar da.** Dei egin arratsaldeko 8etatik aurrera 79 71 86 tfno. ra. Marisol.
- **FP2 eginda eta montaje elektrikoan esperientzia duen mutil bat edozein instalazio egiteko prest: goiargituak, automatik, automatismoak, etab. Prezio erdian.** Harremanetarako dei egin 77 10 91 tfno. ra.

SALEROSKETAK

- **Itzul eta Sor salako liburuak salgai.** Merke eta berriak. 9-13 urte bitarteko haurrentzat. Tfnoa: 79 80 91. Ander.
- **Cibro-Kamin berogailua egoera oso onean salgai.** Tfnoa: 79 56 46.
- **Charli Mousser hamabi puntatako granpoiak, Serval lo-zakua eta espelaz (boj) egindako nafar dultzaina salgai.** Tfnoa: 77 09 72

DENETARIK

- **Egunero Bilbora (Leioara) joateko kotxea behar dut, gastuak erdibana.** Dei egin gaueko 11etatik aurrera 79 66 99 tfno. ra.
- **Egunero eguerdiko 2etarako Eibarren egon behar dut.** Norbait eramateko prest badago dei egin dezala 79 22 63 tfno. ra (gaueko 9.30etatik aurrera).
- **Bilbora (Leioara) arratsaldez bazoaz, dei egin 79 22 63 tfno. ra, gaueko 9.30etatik aurrera.**
- **Jon Rodriguez-i bere urtebetetze-egunean zorion handi-handiak Zamoran dagoen bere aitaren partez.**
- **Betaurreko bifokalak guldu ditut.** Dei egin 79 57 58 tfno. ra. Saritu egingo dut.



**ARRASATEN
HILDAKOAK**



Antonio Urbano Hidalgo,
azaroaren 14ean. 55 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Manuela del Rey

Erguineko jubilatuen egoitzakoa



- **Musean ala tutean?** Ez dakit jokutzen, ez batean eta ez bestean.
- **Tabernan, telebista ala musika?** Biak jartzen ditut, baina niri telebista gehiago gustatzen zait.
- **Bezeroak gizonezkoak ala emakumezkoak?** Berdin zait.
- **Itsutu ala gortu?** Jainkoa! Gortu, noski.
- **Arratsalde erdian, pintxoa ala kafesnea?** Kafesnea, ahal dudanean hartzen dut.
- **Kañak ala botilako garagardoa?** Botilan ateratzea nahiago dut.
- **Irakurtzea, komunean ala ohean?** Egongelan.
- **Mahaiak jaso ala barra fregatu?** Biak antzera, baina barra fregatzea nahiago dut.
- **Baserría ala kalea?** Baserría ez dut ezagutzen, beraz, kalea.
- **Taberna zabaltzeko ordua ala ixtekoa?** Ixtekoa, noski.
- **Permanentea ala ile naturala?** Permanentea.
- **Sandwicha ala ogitartekoa?** Ogitarteko on bat hobeto.
- **Lo, bakarrik ala beste norbaitekin?** Senarrarekin gustoen.
- **Perfumea ala kolonia?** Ez zaizkit gehiegi gustatzen, baina aukeratzekotan perfumea.
- **Kotxe handia ala txikia?** Ez handia eta ez txikia, normala.
- **Tabako rubioa ala beltza?** Bat ere ez.
- **Mendia ala hondartza?** Mendia.
- **Gonak ala frakak?** Gonak erabiltzen ditut normalean.
- **Pintatzekotan, begiak ala ezpainak?** Begiak, baina oso gutxi eta oso gutxitan.
- **Gizonezkoak, sport jantziekin ala trajeaz?** Trajeaz hobeto.
- **Iñaki Perurena ala Marino Lejarreta?** Marino Lejarreta.
- **Sabrina ala Marta Sanchez?** Marta Sanchez hobeto ikusten dut.

Bertsotan

Prentsa lokalari buruzko Ihardunaldiak

1
Aste buru honetan kontu berezia prentsa lokalei buruz saio nagusia Jainkotzat hartu barik inon trebezia izango da zer esan eta zer ikasia.

2
Hemengo ponentzizat jaso dut albiste zuzendaria omen dagoela triste tirada handitzeko diariora beste zortzi orri erderaz sartuko dituzte.

JON IÑAKI IZARZELAI

PRENTSA
LOKALARI
BURUZKO

Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

BEVERLY TABERNA

Gipuzkoa Etorb., 9 Tfnoa: 79 16 99
ARRASATE



M

onterro-
neko
kondeak
madrildar
batzuk
kontrata-
tu zituen

mahai bat egiteko 1954 urtean.

Hankak Madrilen egin zituzten eta mahaiaren gainaldea inguruetak

jauregi batean hartutako 12 metroko haritz-kapirioarekin; honek 55 zentimetroko zabalera eta 40ko altuera zituen. Haritz-karrera honetatik hiru ohol atera zituzten eta Arrasateko Felipe Iarzaren aroztegian 6 metro zituen mahai-gaina egin zuten. Mahaia bukatu ondoren, 200 kilotik gora zituen eta Monterroneko gela nagusian egon zen.

Mahaia daramatenak, ezkerraldekoak, aurretik hasi eta atzekaldera: **Luis Heriz, Felipe Iarza**, bere ondokoa semea, **Jose Luis Iarza, Jabier Rod** ondorengoa, bi madrildar eta azkena **Jose Ramon Ozaeta**. Aurrekaldean, mahai azpian eta erdian doana madrildar bat da, eta eskumakoa Inazio Zubizarreta.

URONDO
elektrizitatea




Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 **ARRASATE**

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

zeppelin




Loramendi, 3 etxabea
ARRASATE Tfnoa: 79 74 09



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Eskuartearen daukazun proiektu horretan etsi nahian zabilta antza denez. Eduki egonarri pixka bat azken txanpan zaude eta. Besteak zuri mesede egin nahian dabilta, onar ezazu.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Izugarrizko kapazidadea izango duzu sormenerako. Horren adierazgarri izango liratekeen lanak edo, egitea komeniko litzaizuke. Sentibera egongo zara besteek esaten dutenarekiko.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Buruargi egongo zara eta berehalakoan aterako duzu dena aurrera. Maitagarri ere egongo zara eta aukeran izango dituzu ligeak. Makaleko zortea izango duzu datozen egunetan.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Izugarrizko etorria izango duzu edozein egoerari aurre egiteko. Egoera fisikoari dagokionez motel samar zaude, eta hori izango da esfortzu gehien egin beharko duzun alorra.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Azkenaldian gogor aitu zara lanean eta parrandarako irrikan zaude. Badakizu zein erraz pasatzen zaren mutur batetik bestera eta bien arteko oreka bilatu beharko zenuke. Liluragarri egongo zara.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Buelta gehiegi emango diezu garrantzi gehiegi merezi ez duten arazoel. Ardura sortzen dizuten inguru eta giroak ahali eta gutxien bisitatu, mesedegarri izango bait zaizu. Kirola egin.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Bat eta bat bi izan ohi dira betidanik, Gemini. Hirugarrenaren bila ibiltzea alperrikakoa izango da beraz. Baliteke nekearen ondorioz edo, gehiago nahi izatea. Gorputza tregua eske daukazu.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Atsegin egongo zara eta ia jende guztia zurekin egon nahian ibiliko da. Lagunarekin ere inoiz baino hobeto eramango duzu haremana. Armonia osoan pasako dituzu datozen egunak. Bizipoza.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Barrea eta algarra izango da, bai, zu zauden tokian. Primeran zaude eta begibistan egongo da. Finantza arloan etekinen bat atera nahi izanez gero ez egon dudamudatan, zortea zure alde bait dago.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Zeuretasunean murgilduta bizi zara nonbait azkenaldian. Beste batzuk ere hor direla konturatzea behar-beharrezkoa duzu bakardadea ez somatzekotan. Bapo jaten duzu eta hasia izango zara ondorioak antzematen.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Badiardi zure energiak motelduz doazela. Zeure esku dago mantentzea eta geldokieran ez erortzea. Eziozu momentu honetan behintzat alferkeriari tokirik utzi. Lo eta lo egingo duzu.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Maiteminduta zaude eta ez duzu beste ezertan pentsatzeko asmorik azaltzen. Ssaia zaitez tokian tokiko ardura izaten. Lana eta maitasuna nahastea kaltegarri izaten omen da.

Azaroaren 15etik abenduaren 15era Citroën ZX bat probatzeagatik BIDEOKAMARA baten zozketan parte hartuko duzu.

CHAPIME TAILERRAK. ARRASATE

CITROËN ZX





Ostiral musikala

Ostiralean, 9.15etan

Datorren astetik aurrera, saio berri bat izango duzue ikusgai ATBn: Ostiral musikala.

Marta Izagirreraren batutapean, Arrasate Musikal kontserbategiko irakasle eta, batez ere, ikasleak izango ditugu bertan protagonista.

Datorren ostiraleko lehenengo programan, Marta Izagirrerekin batera Juanito Arzamendi, Arrasateko Musikaleko zuzendaria, eta Amaia Arzamendi eta Amaia Garro bibolin-jole gazteak egongo dira.

Telebegi

Duela gutxi jarri dugu ATBn egun osoko **teletestua** martxan. Modu honetan geure eskaintza zabalagoa eta osatuagoa izan dadin nahi genuke.

Teletestuaren helburu nagusia informazioa da. Beharrezko telefonoak, autobusen ordutegia, asteko agenda eta... informazio komertziala. Azkenatal hau, komertziala den heinean, diru-iturri izango da guretzat, noski. Baina horren gainera, informazio-mota honek duen interesa azpimarratu nahi nuke. Herriko eta inguruetako jatetxe, denda, tailer, pintore, iturgin, mediku, abokatu, etab.en helbidea nahiz telefonoa, atalka sailkaturik eta egun osoz eskuera, edukitzea interes handiko kontua iruditzen zait. Telefonikaren «Orrialde Horiak» liburuaren ideia bera da, baina geuk eman dezakegu informazio ugariagoa eta eskuragarriagoa.

Aurrerantzean izan ditzakeen erabilpenak kontutan hartu gabe, **teletestua** dagoenetan aurrerapausu handia delakoan nago. Informazioa ugaltzen duelako —euskarri iraunkorrez—, eta ATBren presentzi orduak biderkatu egiten dituelako.

Orain saiatu egin behar ahalik eta informazio interesgarriena modurik egokienean ematen. Eta zu, hau irakurtzen duzun ATBko ikuslea, saia zaitetz ahalik eta probetxu handiena ateratzen.

MIKEL IRIZAR

Mondra-Gol

Aste honetan:
Elgoibar-Mondra

Igandean
9.15etan

Erreportaiak

- Prentsa lokalaren ihardunaldiak
- Arrasateko ostalaritza

Asteartean
9.15etan

Erretratua

Gonbidatua:
Albaro Arregi

Ostegunean
9.15etan

Programazioa

24

IGANDEA

9.30etan, **Mondragol**.
Mondra-Elgoibar partiduaren ordu erdiko laburpena.

26

ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**.
9.15. **Erreportaiak**. Aste honetan, Arrasaten prentsa lokalari buruz antolatuko diren ihardunaldiei, eta gure herriko ostalaritzari buruzko lanak izango dituzue ikusgai.

28

OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**.
9.15. **Erretratua**. J.R. Elortzak zuzendutako elkarrizketa saioa. Gonbidatua: **Albaro Arregi**, "Axeri", Arrasateko Alkate-ohia eta mendigoizale ezaguna.

25

ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**.
ATBren albiste-emanaldia.
9.15etan, **Mondra Sport**.
Arrasateko kirol-mundua-
ren errepasa.

27

ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**.
ATBren albistegia.
9.15. **Txatxaran**. Mainer Egués-
ek zuzendutako elkarrizketa
saioa. Aste honetako gonbi-
datua: Garikoitz Uribetxeba-
rria, Gaztetxeko ordezkaria.

29

OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**.
9.15. **Ostiral Musikala**. Mar-
ta Izagirrek zuzenduta, Arra-
sate Musikali eskainitako
saioa.

CALIBRA

by Opel



BENETAKO INGENIERIA ALEMANA

Zaldi hegalarien muturra, argi elipsoidal iraultzaileak eta spoiler integratuak.
150 zaldi arteko potentzia duten motorrak, katalitzailedunak, 16 balbula, injekzio elektronikoa eta trakzioa aurrekaldean edo lau gurpiletara dutenak.
Eta, horretaz gain, honokoak dituen serieko ekipamendua: **ABSa, direkzio**

lagundua, aire egokitua, chech-control-a, irrati-kasette estereoa, lapurreten kontrako alarma, aleaziozko llantak, leihoigotzeko elektrikoak, sarraila zentralizatuak...

Prezioa 2.0.i: 3.057.500 pzta.*
Prezioa 2.0.i 16 B.: 3.627.500 pzta.*

Fabrikanteak aholkatutako prezioa (Penintsula eta Balearretarako).
Garraioa, BEZa eta entregatu aurreko gastuak barne.



Zain gaituzu

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAn

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

Esperientziaz onenak

OPEL 
Kontzesionario ofizialak